



Gizarte-sareak eta eskola-haurrak

Hauek dira Gasteizko eskola-haurrek gehien erabiltzen dituzten **gizarte-sare, aplikazio edo bat-bateko mezularitzak.**



Aplikazioak



Whatsapp

Testu-mezuak, irudiak, bideoak edota audioak parte daitezke. Harremana bakarkakoa edo kontaktu-talde bidezkoa izan daiteke.



Instagram

Irudi eta bideoak parteka daitezke. Edonorentzat irekita egon daiteke edo, nahi bada, sarbidea baimendutako pertsonentzat soilik muga daiteke. Aukera dago erabiltzaileak blokeatzeko, taldeak konfiguratzeko, mezularitza zuzenean aritzeko, argitalpenei etiketak jartzeko, etab.



Snapchat

Mezu edo irudi bat igor daiteke erakusgarri egongo den denbora zehaztuz.




Facebook

Oharrak, irudiak, webgunetarako estekak edota bideoak partekatzeko aukera ematen duen gizarte-sarea da. Edozein erabiltzailek irekitzeko moduan konfigura daiteke edo, nahi bada, baimendutako pertsonentzat muga daiteke sarbidea.




Twitter

Jatorrian, mezu laburrak partekatzen ziren modu irekian erabiltzaileekin. Ondoren, mezuen hedapena onartutako pertsonentzat muga daiteke. Aukera dago irudiak edo bideoak partekatzeko, mezu pribatuak igortzeko, etiketak ipintzeko, etab.



Erabilera Egokia

- 👍 Zaindu "erakusten" edo "argitaratzen" den informazioa. Zalantzaren bat izanez gero, hobeto ez argitaratzea.
- 👍 Pentsatu argitaratu aurretik. Sen ona erabili.
- 👍 Gizarte-sareko "lagun" modura bizitza errealean hala diren pertsonak onartu soilik.
- 👍 Eskaria luzatzen duen oro ez onartzean, ez da deus gertatzen.
- 👍 Adi sarera igotzen diren ohar, argazki edo bideoekin. Gaur irrigarri izan daitekeena, litekeena da bihar hala ez izatea.



Arriskuak

- 👎 Grooming
- 👎 Sexting
- 👎 Cyberbullying
- 👎 Adikzioa
- 👎 Eduki desegokieta-rako sarbidea